

# Komunikabideak eta taldearteko mintzaira soslaia: Picassoren “Guernica” Bilboko Guggenheim-era ekartzearen inguruko polemika

J.F. Valencia, L. Gil de Montes, E. Sansinenea, G. Erdozia, B. Usabiaga, N. Ripalda  
EHUko irakasleak

Lan honen helburua komunikabideek taldearteko egoeretan erabiltzen duten mintzairaren abstrakzio-maila soslaitua aztertzea da. Picassoren “Guernica” Bilboko Guggenheim-era ekartzeari buruzko polemika landu zen, zortzi egunkariaren artikulua eta editorialak aztertuz. Gaiaz informatzen zuten egunkariaren mintzaira, Kategoria Linguistikoen Ereduan oinarrituz aztertu zen. Egunkariaren ideologia erabilitako mintzairaren abstrakzio mailan islatuko zela espero zen. Hipotesiak adierazitako moduan, egunkari abertzalegoek mintzaira abstraktuagoa erabili zuten, erabakiaren alderdi sinbolikoak azpimarratuz, egunkari ez-abertzaleek mintzaira konkretuagoa erabili zuten bitartean, modu honetan eztabaidaren arazo teknikoetan oinarrituz. Emaitzak taldearteko mintzaira-soslaia ikerketa larroaren ikuspuntutik eztabaidatzen dira, eta emaitza hauen inplikazioak polemika sortu zen kontestuan oinarrituz azaltzen dira.

The aim of this study is to examine the language bias performed by the mass media in intergroup contexts. Journal articles and editorials of eight different newspapers that made reference to the polemic about bringing Picasso’s “Guernica” to Guggenheim in Bilbao were studied. The language used by the journals on this polemic were examined in terms of the Linguistic Category Model. It was expected that the ideology of the journals would be reflected on the abstraction level of the language used. As the hypothesis stated, the most nationalist journals used a more abstract language, noting the symbolic importance of the polemic; but non-nationalist journals used a more concrete language, basing their arguments on the technical problems. Results were discussed referring to the theoretical tradition on the linguistic intergroup bias, and the implications were explained making reference to the context where the polemic came out.

## Testuinguru teorikoa

«Komunikabideek mezu eta sinboloak helarazteko sistema gisa jokatzeko dute biztanle arruntarentzat. Komunikabideen funtzioa alde batetik dibertitzea, denbora pasarazi eta informatzea da. Bestetik, komunikabideek gizartearen egitura instituzionaletan barneratzea posible egiten dute, gizabanakoei balio, uste eta jokabide kodeak ezarriz» (Chomsky & Herman 1990). Aipu honek dioena oso ideia zabaldua da gizartean. Oro har, komunikabideek erabiltzen duten mintzairaren bidez jarrerak eta ideologia jakinak helarazten dituztela suposatzen da. Komunikabideen mintzairaren eragina argi azaltzen da, adibidez, ekintza politiko objektibo baten deskribaketa irakurtzen bada ideologia politiko ezberdinetako egunkarietako lehenengo orrian (Valencia & Gil de Montes 1997). Lehenengo orrietatik eta artikuluen izenburuetatik uler daitekeen ideologia esplizitua da, eta gehienetan jendea horren jabe da.

Diskurtsuaren mintzairan soma daitekeen ideologia, ordea, askoz ere sotilagoa da (Franco & Maass 1996) eta jendea horren jabe ez den heinean, eraginkorra ere izan daiteke. Lan honetan, orduan, egunkarietan jarrera eta ideologia ezberdinak sortu eta mantentzeko erabiltzen den mintzairaren abstrakzio-maila landuz, Picassoren “Guernica” Bilboko Guggenheim-era ekartzearen inguruko polemika aztertuko da.

Artikuluen mintzairaren abstrakzio-maila aztertzeko asmoz, *Kategoria Linguistikoen Eredua* (Semin & Fiedler 1988, 1991) erabiliko da. Kategoria Linguistikoen Ereduak mintzairaren zenbait egitura-ezaugarri (aditzak eta izenondoak) lau kategoriatan sailkatzen ditu. Ekintza Aditz Deskribatzaileak (EAD) [Ak B jo du] jokaera zehatzei dagozkie, egoera zehatz batean gertatzen dira eta bertan objektu bakar batek parte hartzen du. Gertaera behagarrien deskribapen objektiboari dagozkio eta balentzia semantiko neutroa dute, hau da, testuinguruari buruzko informazioa jaso behar da ekintza positiboa ala negatiboa den ziurtatzeko. Ekintza Aditz Interpretatzaileak (EAI) jokaera-multzo bati dagozkio, egoerari oso lotuak badaude ere [Ak Bri mina egin dio], balentzia semantiko positiboa edo negatiboa dute eta deskribapena barik interpretazioa adierazten dute. Egoera Aditzak (EA) [Ak B gorroto du] emoziozko egoerei dagozkie, objektu bati loturik daude, baina egoerarekiko independenteak dira. Azkenik, izenondoak (IZDO) [A agresiboa da] pertsonen egoera egonkorak dira eta ez daude egoera bati lotuta, ez eta objektu bati ere. Aipatutako lau kategoriak konkrezio-abstrakzio dimentsio batean ezar daitezke, EADak zehatzenak eta IZDOak abstraktuenak izanik.

Semin eta Fiedleren hitzetan (1988, 1991, 1992), jokabideak hitz abstraktuez deskribatzeak (adb: Ak B gorroto du edo A agresiboa da) ondorengo inferentzia kognitiboak sortaraziko ditu: jokabidea luzea eta egonkorra dela, etorkizunean errepikatze probabilitate handia duela eta deskribapen abstraktu eta interpretatiboa denez, behatzaileen arteko desakordioa sortzeko gaitasun handia duela. Gainera, subjektuari buruzko informazio handia ematen du eta egoerari buruzko informazio gutxi, ordea. Aurkakoa gertatzen da jokabideak hitz konkretuez deskribatzen direnean (adb: Ak B jo du edo Ak Bri min eman dio), beraz, sortaraziko dituen inferentziak honako hauek izango dira: jokabidea laburra dela, ez dela

denboran zehar egonkorra, etorkizunean errepikatzeko probabilitate txikia duela, eta jokabide objektiboa eta behagarria denez, behatzaileen arteko desakordia sortzeko gaitasunik ez duela. Honez gain, esaldiaren subjektuari buruzko informazio gutxi ematen du baina egoerari buruzko informazio gehiago. Beraz, estereotipoak sortu eta mantentzeko probabilitate altuagoa izango dute deskribapen abstraktuek (EA edo IZDOekin egindakoek) konkretuek (EAD edo EAlekin egindakoek) baino.

Maass, Salvi, Arcuri eta Seminek (1989) Kategoria Linguistikoen Eredua taldearteko harremanen alorrera egokitu zuten lehenengo aldiz. Horretarako, "Palio" delako zaldi-lasterketa italiarren testuinguruan burutu zuten ikerketa, lagina bi taldetako partaideek osatu zutelarik. Parte-hartzaileei bi marrazkiz osatutako galdesorta banatu zitzaion, bertan norbere taldeko edo beste taldeko pertsona bat jokabide positibo (pertsona bat laguntzen, adibidez) eta negatibo bat (pertsona bat jotzen, adibidez) burutzen agertzen zelarik. Beraz, galde-sortaren marrazkian agertzen zen aktore nagusiaren talde-partaidetza (norbere taldea vs. beste taldea) eta beronek burutzen zuen jokabidearen balentzia (negatiboa vs. positiboa) manipulatu ziren. Marrazki bakoitzaren azpian abstrakzio-maila ezberdinetako (baina balio semantiko berdintsuko) lau erantzun posible (EAD, EAI, EA, IZDO) ematen zitzaizkien, marrazkia hobe deskriba zezakeen esaldia aukera zezaten. Emaitzetan ikusi ahal izan zen nork bere taldeko kideen jokabide positiboak eta beste taldeko kideen jokabide negatiboak mintzaira abstraktua (batez ere EA eta IZDOak) erabiliz kodifikatu zituela, baina nork bere taldekoen jokabide negatiboak eta beste taldekoen jokabide positiboak ordea, mintzaira konkretua (batik bat EAD edo EAI) erabiliz kodifikatu zituela. Honen ondorioz, deskribapen abstraktuek (norbere taldekoen jokabide positiboak eta beste taldekoen jokabide negatiboak) estereotipo bihurtzeko joera zuten, deskribapen konkretuak (norbere taldekoen jokabide negatiboak eta beste taldekoen jokabide positiboak) jokaera mugatu eta puntual bihurtzen ziren bitartean. Ikerketa honetan agertutako fenomenoari taldearteko mintzaira-soslaia deitu zitzaion, eta sortu zenetik bere balidezia ikerketa ugartan frogatu izan da (Maass & Arcuri 1992; Rubini & Semin 1994; Maass, Milesi, Zabini & Stahlberg 1995; Maass, Ceccarelli & Rudin 1996b; Blot, Zarate, Kraan, Garza & Von Hippel 1996).

Taldearteko mintzaira-soslaia inguruan burututako ikerketa gehienak laborategiko testuinguruan egin dira aldagai guztiak kontrolpean eduki ahal izateko. Hala ere, badago salbuespen bat, Maass, Corvino eta Arcurik (1994) ekintza objektiboak deskribatzen zituzten ideologia ezberdinetako egunkarien azterketaren inguruan egindakoa, hain zuzen. Lan hura hiru ikerketez osatua zegoen. Lehenengoan, ikertzaileek futbol-taldeen jokaldi positibo eta negatiboak erkatu zituzten, norbere taldeko egunkariek deskribatzen zituztenean edo beste taldekoak zirenean. Espero zen bezala, norbere taldekoen jokabide positiboak eta beste taldekoen jokabide negatiboak mintzaira abstraktua erabiliz idatzi ziren, baina norbere taldeko kideen jokabide negatiboak eta beste taldekoen jokabide positiboak modu konkretuagoan. Bigarren ikerlanean egunkari judutarren eta egunkari ez-judutarren deskribapenak erkatu ziren erlijio judutarreko pertsona baten kontrako eraso arrazista zela eta. Emaitzetan ikusi zen egunkari judutarrek egunkari ez-judutarrek baino modu abstraktuagoan deskribatu zutela erasotzailea, horrela haren jokabide negatiboa areagotuz eta izenondo ebaluatiboak man-

tenduz. Azken lanean, Golkoko gudaren garaian eta ondoren telebista publikoan agertutako aliatuei eta irakiarrei buruzko deskribapenak erkatu ziren. Golkoko gudaren garaian telebistako berrietan abstraktuago deskribatzen ziren irakiarrak aliatuak baino. Golkoko guda amaitu ondoren soslaia desagertu egin zen.

Maass eta bere lankideek (1989, 1992, 1995, 1996b) taldearteko mintzaira-soslaia atzetik bi prozesu nagusi egon daitezkeela defendatzen dute. Bi prozesu horiek prozesu motibazionala eta prozesu kognitiboa dira. Prozesu motibazionala Tajfel eta Turnerren (1979) Identitate Sozialaren Teoriaren bidez azaltzen dute. Ikuspuntu honetatik, taldearteko mintzaira-soslaia norbere estima babesteko estrategia bezala azalduko litzateke, eta helburu hau lortzeko pertsonak bere taldeko bereizte positiboa lortzeko nahia izango dute, horrela bere taldeko kideen ekintza positiboak eta beste taldekoen ekintza negatiboak abstraktu bihurtuz, eta bere taldekoen ekintza negatiboak eta beste taldeko lagunaren ekintza positiboak konkritu bihurtuz. Prozesu kognitiboei dagokienez, Espektatiba Ezberdinen Teoria erabiltzen da (Rothbart & Park, 1986, Hamilton & Sherman 1994). Teoria honen ikuspuntutik, jasotako informazioa pertsonak espero duenarekin bat baldin badator –kongruentea bada– (gai honetara aplikatuz, norbere taldeko jokabide positiboak eta beste taldekoen jokabide negatiboak badira), orduan mintzaira abstraktua erabiliko da. Eskuratutako informazioa espektatibekin bat ez badator –ez-kongruentea bada– (norbere taldekoen jokabide negatiboak eta beste taldekoen jokabide positiboak badira), mintzaira konkritua erabiliko da. Ikerlan espermental ugarik defendatu dute taldearteko mintzaira soslaia oinarri kognitiboa (Maass et al. 1995; Rubini & Semin 1994), eta azken aldi honetan oinarri motibazionala ere babestu da enpirikoki (Maass et al. 1996b; Blot et al. 1996; Franco & Maass 1996; Valencia & Gil de Montes, prentsan).

Ondorioz, taldearteko mintzaira-soslaia agertzen denean oinarrizko prozesua kognitiboa izatea litekeena da. Hala ere, norbere estimak taldearteko prozesuetan parte hartzen duenean prozesu motibazionalak eginkizun garrantzitsua izango dute, eta muturreko kasuetan prozesu nagusiak izatea gerta liteke.

Aipatutako ikerlanetan taldearteko mintzaira-soslaia baldintza murrizetan agertzen da, hau da, aktore nagusiei buruzko informazioa lortzen denean soilik; Rubini eta Seminek (1994) erakutsi zuten gai bati emandako arrazonaketetan ere soslaia ager zitekeela. Horixe gertatu zen Rubini eta Seminek bi talde politikoen norbere taldeko mintzaira-soslaia aztertu zutenean. Lan hartako parte-hartzaileek erantzun-formato irekian eman zizkieten azalpenak norbere taldeko kideen jokabide tipiko (kongruenteak) eta ez-tipikoei (ez-kongruenteak). Kasu honetan taldearteko mintzaira soslaia agertu zen endotaldearen kasuan; hots, jokabide tipikoak modu abstraktuan deskribatu ziren, jokabide ez-tipikoak modu konkrituagoan deskribatu ziren bitartean. Kasu honetan taldearteko mintzaira-soslaia oinarri kognitiboa defendatu zen.

Lan honetan, egunkariaren arrazonaketak erkatuko dira taldearteko mintzaira-soslaia testuinguru natural batean frogatzeko asmoz, aztertuko den gaia Picassoren “Guernica” koadroa Bilboko Guggenheim-era ekartzearen inguruko polemika izango delarik. Picassok “Guernica” 1937.ean marraztu zuen Gernikako

bonbardaketan inspiratuz. Bonbardaketa Errepublikaren aurkako iraultza militarren eskutik gertatu zen, eta orduko Errepublikako Gobernuak “Guernica” koadroa marraztea eskatu zion Picassori. Alde batetik, “Guernica” koadroa XX. mendeko koadro onenetarikoak da. Errepublikaren kontra altxatutako militarrek Gobernura iritsi zirenean, “Guernica” atzerrira eraman zuten, eta ez zuten Espainiara itzuli demokrazia ezarri arte. Kanpoan egon zen denboraldi luze hartan, “Guernica” hogeitamar aldiz baino gehiago mugitu zuten leku batetik bestera hainbat erakusketatan parte hartzeko. Aldaketa horiek guztiek koadroan eragin latza izan zuten, eta gaur egun esaten denaren arabera, oso egoera txarrean dago. Bestetik, “Guernica”k alderdi sinboliko eta historiko garrantzitsuak du, marrazkiak islatzen duen Gernikako masakrearengatik eta Francoren Gobernuak iraun zuen bitartean kanpoan egon izanagatik. Esanahi sinboliko hau are eta garrantzitsuagoa da Euskal Herriko alderdi abertzaleentzat, Euskal Herriak garai hartan sufritutako zapalkuntzaren aurkako sinboloa baita.

Egunkarietako polemika Eusko Jaurlaritzak Bilboko Guggenheim museoaren inaugurazio egunean aurkezteko asmoz “Guernica” denboraldi baterako eskatu zuenean sortu zen, eta zehazki “Guernica” gordetzen duen Reina Sofía museoak Eusko Jaurlaritzari mailegua ukatu zionean koadroaren egoera larria zela eta. Reina Sofía museoak bere txostenaren kalitate teknikoa defendatu zuen, Eusko Jaurlaritzak erabakia teknikoa barik politikoa zela argudiatzen zuen bitartean.

Reina Sofía eta Guggenheim museoaren arteko eztabaida egunkari guztietan agertu zen. Beraz, lan honetan espero zen egunkariak ematen zituzten arrazoiak mintzairaren egitura-ezaugarrien abstrakzio mailan islatzea. Hori aztertu ahal izateko, egitura-ezaugarrien azterketa objektiboa, koalitatiboagoa den egunkarien titularren diskurtsoaren azterketarekin gonbaratu zen. Izan ere, egunkari abertzalegoek mintzaira abstraktuagoa erabiliko zuten, koadroaren alderdi sinbolikoari emango baitzioten garrantzia. Egunkari ez-abertzaleak ordea, koadroaren egoera larria eta zailtasun teknikoetan oinarrituko ziren, mintzaira konkretuagoa erabiliz.

## Metodologia

**Unitate Analisia.** Lan honetako unitate-analisiak egunkari bakoitzean agertutako aditzak eta izenondoak izan ziren. Guztira, 2002 aditz eta izenondo kodifikatu ziren. 132 kategoria (% 6,6) aurkitu ziren egunkarien lehenengo orrialdeetan, 1650 (%8 2,4) egunkari bakoiko orrialdeetan eta 220 (% 11) editorialetan. Izenburuetan 190 (% 9,5) kategoria kodifikatu ziren, eta gainerako guztia artikuluetako informazio arrunta zen.

Zortzi egunkarietako informazioa bildu zen eta 1997ko maiatzaren 14ko artikulua besterik ez. Ondorengo taulan egunkari bakoitzean kodifikatutako aditz-kopurua agertzen da.

Egunkariak	EGIN	EGUNK.	DEIA	DV	CORREC	PAIS	MUNDO	ABC
Aditz-Kopurua	310	181	170	286	315	238	369	133

**Kodifikatze Prozedura.** Egunkarietan agertu zen kategoria bakoitza kasu bat izango balitz bezala kodifikatu zen. Kasuaren zenbakiaren ondoren, zein egunkaritatik atera izan zen kodifikatu zen, zein artikulu-mota zen (lehenengo orria, barruko orria edo editoriala), artikulua izenburua zen ala ez, kategoria-mota (EAD, EAI, EA, IZDO) eta kategoriaren balentzia (negatiboa, neutroa edo positiboa).


**Diseinua.** Egunkari-mota (EGIN, EGUNKARIA, DEIA, DV, EL CORREO, EL PAIS, EL MUNDO, ABC) x Balentzia (negatiboa, positiboa) diseinu faktoriala erabili zen. Menpeko aldagaiak kategoria linguistikoak (EAI, EA, IZDO) ziren, non EAD diseinutik kanpo utzi zen kategoria honetan aditz neutroen proportzioa altuegia baitzen.

### Analisiak eta emaitzak


Lanaren analisi nagusien emaitzak aurkeztu baino lehen, zenbait datu deskribatzaile emango dira kategoria linguistikoa eta balentziari buruz. 664 EAD (% 33,2) kodifikatu ziren, 466 EAI (% 23,3), 164 EA (% 8,2) eta 708 IZDO (% 35,4). Proportzio hauek taldearteko mintzaira-soslaiari buruzko lanetan lortutakoekin parekatzen badira, lan honetan EADen proportzioa altuagoa dela ikus daiteke. Fiedler, Semin eta Boltenek (1989) diotenez, jendeak mintzaira abstraktua erabiltzen du gehienetan, hizketan joera arruntena jeneraltasunerantzakoa delarik, gutxi esatearekin informazio handia ematen baita. Hala ere, egunkarien artikuluetan badago deskribapen huts eta objektiboa erabiltzeko joera, hauen azken helburua informazio zuzena eta objektiboa eskaintzea baita. Beraz, lan-mota honetan EAD gehiago aurkitzea normala izango litzateke. Hunkipenak adierazten dituzten egoera-aditzak (EA) oso proportzio txikitik kodifikatzen dira gehienetan, eta hala gertatu da lan honetan ere. Izenondoen proportzio handia dago, baina kopuru handi bat izenondo neutro edo deskribatzaileak dira. Kategoria linguistikoen balentziari dagokionez, 334 kategoria negatibo daude (%16.7), 1049 neutro (% 52,4) eta 619 positibo (% 30,9). Kategoria neutroak (gehienak EAD eta izenondoak -IZDO-), MANOVA analisitik kanpo utziko dira, balentzia negatibo eta positiboa bakarrik kontuan hartuko baita.

Analisi orokorrean lau kategoria linguistikoen (EAD, EAI, EA, IZDO) maiztasunen proportzioak erkatu ziren zortzi egunkarietan (EGIN, EGUNKARIA, DEIA, DV, EL CORREO, EL PAIS, EL MUNDO eta ABC). Espero zen egunkari abertzaleagoek (DEIA, EGIN, EGUNKARIA) mintzaira abstraktuagoa erabiltzea egunkari ez-abertzaleek baino (DV, EL CORREO, EL PAIS, EL MUNDO, ABC).


Arreta merezi duen lehenengo datua EGUNKARIAKO aditz-proportzioak dira. 1, 2, 3 eta 4. irudietan ikus daitekeenez eta espero zenaren aurka, EGUNKARIA da EAD konkretu gehien idatzi dituen, eta aldi berean IZDO abstraktuak gutxien erabili dituen. Datu hauek beste egunkari guztietako aditz-proportzioetatik




**1. irudia.** Aztertutako egunkariak erabilitako Ekintza Aditz Deskribatzaileen (EAD) proportzioak.



**2. irudia.** Aztertutako egunkariak erabilitako Ekintza Aditz Interpretatzaileen (EAI) proportzioak.



**3. irudia.** Aztertutako egunkariak erabilitako Egoera Aditzen (EA) proportzioak.



**4. irudia.** Aztertutako egunkariak erabilitako Izenondoan (IZDO) proportzioak.



aldentzen dira. EGUNKARIAK erabiltzen duen mintzaira konkretua hitz zorrozki objektibo eta deskribatzaileak erabiltzeari zor zaio.

DEIAK beste eredu bat aurkezten du, mintzaira abstraktuena erabiltzen duen egunkaria baita. DEIA EAD eta EAI konkretu gutxien erabiltzen duena da, eta modu berean izenondo (IZDO) abstraktu gehien erabiltzen duena. Halaber, EGINEK ere mintzaira abstraktua erabiltzen du, baina IZDOak barik, EAen kopuru handiena erabiltzen duena da. Bi egunkari abertzale hauek abstrakzio-maila altuaz idazten dute, beraz, oso inferentzia-maila altuko mintzaira erabiltzen dute, eztabaidaren alderdi historiko eta sinbolikoan oinarritzen direlarik.

Egunkari ez-abertzaleetan beste eredu bat sortzen da. EL MUNDO EAI gehien erabiltzen dituen da, EAD proportzio altua ere erabiltzen du, eta izenondo (IZDO) gutxi ordea. Datu hauek EL MUNDO-k mintzaira konkretua erabiltzen duela adierazten dute. ABC-k patroia hau errepikatzen du, azken punturaino eramaten duelarik. ABC egunkaria EAD proportzio handiena erabiltzen duena da, eta aldi berean EA eta IZDO gutxien erabiltzen duena. Beraz, ABC-k beste egunkarietako baino mintzaira konkretuagoa erabiltzen du.

Azkenik, DV, EL CORREO eta EL PAIS-en aditz proportzioak abstrakzio-maila ertainean kokatzen dira aditz guztiei dagokienez.

Egunkari guztiak batera hartuta, EAletzat izan ezik, gainerako kategorientzat chi karratu testan lortutako signifikazio-maila esanguratsua dela ikus daiteke, EADentzat  $\chi^2(7) = 37.08$ ;  $p < .001$ ; EAletzat  $\chi^2(7) = 12.98$ ;  $p < .073$ ; EAentzat  $\chi^2(7) = 17.43$ ;  $p < .015$  eta IZDOentzat  $\chi^2(7) = 41.92$ ;  $p < .001$ . Beraz, lortutako emaitzen arabera ezberdintasun nabariak daude egunkarien artean kategoria linguistiko bakoitzean, EAletan efektu ahulagoa lortzen bada ere.

Azken analisi bat burutu zen kategorien balentziaren eragina egunkari guztien diskurtsuetan aztertu ahal izateko. Aldagai anitzeko bariantza analisisa (MANOVA) burutu zen, non egunkari-mota eta balentzia subjektuarterako faktore gisa erabili ziren, kategoria-mota bakoitzaren arkusinuko proportzioak menpeko aldagaiak zirelarik. Balentzia faktoreak bi maila zituen, positiboa eta negatiboa hain zuzen, eta beraz EADak ez ziren analisisian sartu hauen balentzia gehienbat neutroa baitzen.

Kategoria linguistikoen balentziak eta egunkari-motak kategoria linguistikoen erabilpenean eragin garrantzitsua zuten, balentziaren efektua ( $F_{(2,953)} = 5.71$ ;  $p < .003$ ) eta egunkari-motaren efektua ( $F_{(14,953)} = 3.11$ ;  $p < .001$ ) esanguratsua izan zirelarik. 1. taulan ikus daitekeenez, egunkari-motaren efektuak arestian azaldu-tako maiztasunen analisisa baieztatzen du, hau da, egunkari ez-abertzaleek abertzaleak direnak baino kategoria konkretu gehiago erabiltzen dituzte. Kontrako patroia eskuratzen da kategoria abstraktuagoen kasuan, abertzaleek ez-abertzaleek baino gehiago erabiltzen baitituzte. Jarraian, balentziaren efektua azalduko da. Balentziaren efektua kategoria konkretuetan (EAletan) balentzia negatiboko hitzak balentzia positibokoak baino gehiago daudelako agertzen da ( $t(953) = 3.66$ ;  $p < .001$ ) eta kategoria abstraktuen kasuan (EA eta IZDOak), positiboak negatiboak baino ugariagoak direlako (EAetan  $t(953) = -2.02$ ;  $p < .043$  eta IZDOetan  $t(953) = -2.49$ ;  $p < .013$ ).

Egunkariak	EGIN	Egunk.	DEIA	DV	Correo	País	Mundo	ABC
Negatiboa EAI	.44	.34	.46	.32	.34	.47	.57	.58
Positiboa	.31	.54	.22	.26	.31	.31	.38	.41
Negatiboa EA	.17	.11	.08	.09	.11	.11	.14	-
Positiboa	.24	.10	.16	.20	.16	.08	.15	.12
Negatiboa IZDO	.23	.39	.30	.40	.39	.27	.12	.26
Positiboa	.27	.20	.46	.38	.37	.45	.32	.31

**1. Taula.** Kategoria linguistiko bakoitzaren batezbestekoak egunkari eta kategorien balentziaren arabera

Honez gain, elkarrekintza-efektua eskuratu zen balentzia eta egunkari-mota aldagaien artean ( $F(14,953)=1.75$ ;  $p < .041$ ). Honek egunkari-mota ezberdinek kategoria positibo eta negatiboak abstrakzio-maila ezberdinetan kodifikatzen dituztela esan nahi du. Ondoren, balentzia eta egunkari-motaren arteko harremana kategoria linguistiko bakoitzean aztertu ahal izateko, ANOVA analisisen emaitzak aurkezten dira. Analisi hauek elkarrekintza efektua izenondoei batez ere eta ekintza aditz interpretatzaileei (EAI) ere zor zitzaie la erakutsi zuten, EAIen kasuan  $F(7,953)=1.842$ ;  $p < .076$ , EAen kasuan  $F(7,953)=0.705$ ;  $p < .668$  eta IZDOen kasuan  $F(7,953)=2.298$ ;  $p < .025$  baitzen.

Aldagai bakarreko efektuei dagokienez, balentzia eta egunkari-motaren efektu esanguratsuak lortu ziren kategoria linguistiko bakoitzean (EAIetan balentziak ( $F(1,953)=16.094$ ;  $p < .001$ ) eta egunkari-motak ( $F(7,953)=4.135$ ;  $p < .001$ ), EAetan balentziak ( $F(1,953)=5.047$ ;  $p < .025$ ) eta egunkari-motak ( $F(7,953)=2.213$ ;  $p < .031$ ) eta azkenik, IZDOetan balentziak ( $F(1,953)=6.437$ ;  $p < .011$ ) eta egunkari-motak ( $F(7,953)=3.911$ ;  $p < .001$ ). Datu hauek balentziak eta egunkari-mota aldagaiek kategoria linguistiko bakoitzean aldagai bakarreko efektu nabariak dituztela adierazten dute.

### Ondorioak eta eztabaida

Lan honen helburua komunikabideek erabilitako mintzairaren bidez helarazi eta mantentzen dituzten jarrera edo ideologia implizituak aztertzea zen. Emaitzetan azaldu denez, egunkarien jarrerak soma zitezkeen diskurtso orokorraren abstrakzio mailan. Kasu honetan Picassoren "Guernica" koadroa ekartzearen polemikan oinarrituz, zortzi egunkaritarako artikuluetan agertutako aditz eta izenondoak aztertu ziren, egunkariek defendatzen zituzten jarrerak erakutsiz. Jarraian, kategoria linguistikoen analisiaren bidez eskuratutako datu objektiboak koalitatiboagoa den diskurtso-analisiarekin erkatuko dira.

DEIA egunkari abertzaleak izenondo (IZDO) proportzio handiena erabili zuen, “Guernica” Bilbora ekartzearen garrantzia nabarmentzen baitzuen. Honi erants geniezaioke informazio koalitatiboa, hau da, DEIA egunkarian “Guernica”ri buruzko artikulua nagusi eta handiena da lehenengo orrialdean, eta honez gain, izenburu garrantzitsuenak zera dio: «Euskadi reacciona con dureza al “no” del “Guernica” al Guggenheim». Diskurtsu honek Madrilgo ukapenaren arbuioa azaltzen du eta erabaki honen inplikazio sinbolikoak nabarmentzen ditu, ondorioz modu abstraktuenean deskribatzen delarik. DEIA erabaki politikoaren ideia gehien azpimarratzen duena da.

Modu berean, EGINEK ere erabaki politikoa dela salatzen du, baina DEIA ez bezala, “Guernica” Gernikara ekartzearen defendatzailea da. EGINEN ustez, Madrilgo ezetza erabaki politikoa da, baina Eusko Jaurlaritzaren eskaerak helburu sinboliko eta historikoa barik, helburu ekonomikoa du, Guggenheim museoaren inaugurazioaren arrakasta ekonomikoa, hain zuzen. Beraz, EGINEK “Guernica”ren esanahi sinboliko, historiko eta afektiboa nabarmentzen du, eta honen ondorioz, egoera-aditz (sentimenduak adierazten dituzten EAK) gehien erabiltzen dituen da. Kualitatiboki, bere diskurtsuaren adibidea editorialaren izenburua da: «Símbolo o negocio».

EL MUNDO edo ABC ordea, hitz konkretuenak erabili zituzten egunkariak izan ziren, eta Reina Sofía museoaren erabaki teknikoarekin bat zetozen. Izan ere, EL MUNDO EAI gehien erabiltzen duena da eta hala adierazten du egunkari horretako editorialak: «No debe prevalecer la política sobre la conservación del patrimonio artístico». Ildo beretik jarraituz, ABCren testuan deskribaketak du lehentasuna eta ondorioz zorrozki objektiboa da (EAD proportzio handiena duena), “Guernica”ren alderdi sinbolikoari garrantzirik eman gabe. Izenburu nagusian ere Reina Sofíaren ezezkoaren alde agertzen da, eta gainera erabaki politikoaren ideia zentzugabekeria dela azpimarratzen du, koadroa ezin baita eraman Euskal Herrira ez eta beste inora ere: «El Patronato del Museo Reina Sofía acuerda por unanimidad que el “Guernica” no debe moverse ni en ésta ni en sucesivas ocasiones».

EL CORREO, DV eta EL PAIS-ek abstrakzio-maila ertaina erabiliz deskribatu zuten polemika. Itxarondako norabidean ez doan egunkari bakarra EGUNKARIA da, honek oso mintzaira konkretua erabiltzen baitu. Agian EGUNKARIAK duen euskararen erabilpenarekiko helburu didaktikoa izan daiteke honen zergatia. Horrela azal liteke EGUNKARIAK erabiltzen duen mintzaira deskribatzaile eta konkretuaren proportzio altua, mintzaira garbia eta inferentziarik gabekoa ulertzeko errezago baita. Ezaugarri hau EGUNKARIAren lehenengo orrialdeko izenburuan ere soma daiteke: «Picassoren koadroa ez dute Bilbora ekarriko».

Lan honek Maass, Corvino eta Arcurik (1994) zabaldutako bidetik jarraitzen du, egunkarietan agertzen den taldearteko mintzaira-soslaia aztertzen baita. Hala ere, lan hau Maass eta bere laguntzaileek (1994) burututako lanetatik aldentzen da, pertsona edo talde nagusi bati buruzko diskurtsua ez baita aztertzen, gai baten inguruan sortzen den eztabaida orokorra baizik.

Taldearteko mintzaira-soslaiaren atzean dauden prozesuei dagokienez, bi irtenbide posible daudela esan genezake. Alde batetik, prozesu motibazionalak taldearteko mintzaira-soslaira daramaten mekanismoak izan daitezke. Ikuspuntu honetatik, egunkari abertzale eta ez-abertzaleetan erabilitako mintzairaren abstrakzio-maila ezberdina bereizte positiboa lortu nahi izateari zor zaio. Egunkari abertzaleen kasuan, norbere taldeari dagokion sinbolo garrantzitsua da “Guernica”, eta mintzaira abstraktua erabiliz, koadro honen balio sinbolikoa nabarmentzen dute. Egunkari ez-abertzaleen kasuan ordea, koadroaren balio instrumentala goraiatzeko da, mundu osoaren ekarpen artistikoa baita. Hau dela eta, mintzaira tekniko erabiltzen dute, eta arazoaren alderdi sinboliko edo sentibera baztertzen dute. Prozesu kognitiboei dagokienez, espektatiben kongruentziaren inguruan hipotesirik ez dagoela esan behar da. Izan ere, lan honetan nekez planteatu daitezke taldearteko mintzaira-soslai termino kognitiboetan, “Guernica” Bilbora ekartzearen inguruan sortzen den eztabaidak taldearteko espektatibekin ez baitu zerikusirik. Kasu honetan orduan, taldearteko mintzaira-soslaiaren atzean dauden prozesuak motibazionalak direlakoan gaude, eta arestian azaldutako zergatiarekin bat datoz.

Gainera, egunkarietako mintzaira konkretua erabili zuten hitz negatiboak adierazteko eta mintzaira abstraktua hitz positiboak idazteko. Balentziaren efektua egunkarien estilo bereziari zor lekioko. Izenondoak pertsonarteko aditzak baino esplizituagoak dira, eta diskurtso negatiboa egunkari batean gutxitan adierazten da izendondoak edo egoera emozionalak erabiliz, batez ere museo famatu baten aurkakoak direnean. Diskurtso negatiboaren konkreziorako joera beraz, formak gorde behar direlako gerta daitezke. Joera hau ideia negatiboak adierazteko orduan logikoagoa da gertatzea. Diskurtso positiboa berriz, konpromisorik suposatzen ez duenean behintzat, askoz ere esplizituagoa izan daitezke. Hau dela eta, izenondo positiboak negatiboak baino kopuru handiagoan aurkitzea logikoa da, eta halaber hitz konkretu negatibo gehiago positiboak baino.

Franco eta Maassek (1996) proposatzen zutenaren arabera, badaude diskriminazio-neurbide esplizitu eta implizituak. Bere lanean mintzairaren abstrakzio-maila diskriminazio-estrategia implizituzat jotzen dute, baliabideen banaketa eta izenondo ebaluatiboen egozpena diskriminazio-neurbide esplizituagoak diren bitartean. Kasu honetan ere, balentzia eta abstrakzio-mailaren arteko elkarrekintza-efektua diskriminazio-estrategia esplizituagoa delakoan gaude, abstrakzio-mailaren efektu isolatua ez bezala. Beraz, kazetariak balentzia negatiboko hitzak modu konkretuan deskribatzen baditu, eta balentzia positibokoak modu abstraktuan, pertsonak balentziaren efektua kontzienteki kontrola dezakeela dirudi, mintzairaren abstrakzio-maila ez bezala (Franco & Maass 1996). Mintzairaren abstrakzio-maila, orduan, estrategia eraginkorra izan liteke sakonki ezarrita dauden uste eta jarrerak helarazteko, idazlea horretaz konturatzen ez delako, eta irakurlea are eta gutxiago. Hau dela eta, kulturalki ikasitako balioetatik aldendu nahi izanez gero, hauek mintzaira ebaluatibotik kontzienteki baztertzen saiatzea badago, baina ez-kontzienteki mintzairaren abstrakzio-mailan isla litezke.

## Bibliografía

- Blot, K.J., Zarate, M.A., Kraan, E., Garza, A.A. & Von Hippel, W. (1996): "Motivational bases for the linguistic intergroup bias", *The Society of Experimental Social Psychologists kongresuan aurkeztua* (Massachusettsko Unibertsitatean).
- Chomsky, N. & Herman, E. (1990): *Los guardianes de la libertad: propaganda, desinformación y consenso en los medios de comunicación de masas*, Crítica, Bartzelona.
- Fiedler, K., Semin, G.R. & Bolten, S. (1989): "Language use and reification of social information: top-down and bottom-up processing in person cognition", *European Journal of Social Psychology*, 19, 271-295.
- Franco, J.M. & Maass, A. (1996): "Implicit versus explicit strategies of out-group discrimination: the role of intentional control in biased language use and reward allocation", *Journal of Language and Social Psychology*, 51 (3), 335-259.
- Hamilton, D.L. & Sherman, J.W. (1994): "Stereotypes", in R.S. Wyer, Jr. & T.K. Srull (arg.), *Handbook of Social Cognition*, Hillsdale-NJ. Erlbaum, 2. bol., 1-69.
- Maass, A. & Arcuri, L. (1992): "The role of language in the persistence of stereotypes", in G.R. Semin eta K. Fiedler (arg.), *Language, interaction and social cognition*, Sage-Newbury Park, 129-143.
- , & Arcuri, L. (1996a): "Language and Stereotyping", in N. Macrae, M. Hewstone eta C. Stangor (arg.), *The foundations of stereotypes and stereotyping*, Guilford Press-New York, 193-226.
- , Ceccarelli, R. & Rudin, S. (1996b): "Linguistic intergroup bias: evidence for in-group-protective motivation", *Journal of Personality and Social Psychology*, 71 (3), 512-526.
- , Corvino, G. & Arcuri, L. (1994): "Linguistic intergroup bias and the mass media", *Revue Internationale de psychologie sociale*, 1, 31-43.
- , Milesi, A., Zabbini, S., & Stahlberg, D. (1995): "Linguistic intergroup bias: differential expectancies or ingroup protection?", *Journal of Personality and Social Psychology*, 68, 116-126.
- , Salvi, D., Arcuri, L. & Semin, G.R. (1989): "Language use in intergroup contexts: The linguistic intergroup bias", *Journal of Personality and Social Psychology*, 57, 981-993.
- Rothbart, M. & Park, B. (1986): "On the confirmability and disconfirmability of trait concepts", *Journal of Personality and social psychology*, 50, 131-142.
- Rubini, M. & Semin, G.R. (1994): "Language use in the context of congruent and incongruent group behaviors", *British Journal of Social Psychology*, 33, 355-362.
- Semin, G.R. & Fiedler, K. (1988): "The cognitive functions of linguistic categories in describing persons: Social cognition and language", *Journal of Personality and Social Psychology*, 54, 558-568.
- , & Fiedler, K. (1991): "The linguistic category model, its bases, applications and range", in W. Stroebe eta M. Hewstone (arg.), *European Review of Social Psychology*, Wiley-Chichester England, 2. bol., 1-50.
- , & Fiedler, K. (1992): *Language, interaction and social cognition*. Sage: Newbury Park.
- Tajfel, H. & Turner, J.C. (1979): "An integrative theory of intergroup conflict", in S. Worchel eta W.G. Austin (arg.), *The Social Psychology of Intergroup relations*, Brooks-Cole-Monterey, 33-47.
- Valencia, J.F. & Gil de Montes, L. (1997): "La utilización del lenguaje en situaciones de conflicto político. El sesgo lingüístico intergrupar en relaciones entre grupos y en los Mass Media", *Psicología Política*, 14, 7-24.
- , & Gil de Montes, L. [argitaratzeaz]: "El sesgo lingüístico intergrupar: el efecto de la valencia de las categorías lingüísticas", *Revista de Psicología Social*.